

STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek epaitegietara joko dute Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek greba amaierako akordioan sinatutako langile guztientzat eta soldata-kontzeptu guztietan %16ko soldata-igoera bete ditzaten.

2024ko otsailaren 5ean Greba Amaierako Akordioa sinatu genuen Gizarte Ekimeneko patronalek eta sindikatuok. Bertan langile guztientzat soldata-igoerak sinatu genituen, soldata-kontzeptu guztietan eta ehunekotan zehaztuta: 2022: % 1,52ko igoera, 2023: % 5,44ko igoera, 2024: % 8,4ko igoera. **Metatutako igoera, guztira, % 16koa da.**

Patronalek ez dute, ordea, sinatutakoa bete eta aldebakarrez akordioarekin bat egiten ez duten beste igoera batzuk aplikatu dituzte:

- **DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako irakasleentzat %15,43ko igoera soilik** aplikatu diete 2025ko urtarriletik aurrera.
- **Ez dute tutoretza-plusa, dietak eta kilometraje** kontzeptuetan behar bezalako **igoera aplikatu.**

Horregatik, Gizarte Ekimenean ordezkaritza duten STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek erabaki dute bide judizialarekin jarraitzea sinatutako soldata ordainketak erreklamatzeko.

Euskal Herrian, 2025eko otsailaren 18an



STEILAS, CCOO, LAB y UGT acudirán a los tribunales para que las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA cumplan con la subida salarial del 16% para todas las personas trabajadoras y en todos los conceptos salariales suscritos en el acuerdo de fin de huelga.

El 5 de febrero de 2024 firmamos el Acuerdo Fin de Huelga las patronales y los sindicatos de los centros de Iniciativa Social. En ella firmamos incrementos salariales para todo el personal, en todos los conceptos salariales y concretados en porcentajes: 2022: 1,52% de incremento, 2023: 5,44% de incremento, 2024: 8,4% de incremento. **El incremento total acumulado es del 16%.**

Las patronales, sin embargo, han incumplido lo firmado y están aplicando de forma unilateral otras subidas que no se ajustan al acuerdo:

- Para el profesorado de **ESO, Bachillerato y Formación Profesional** sólo les han aplicado un **incremento del 15,43%** a partir de enero de 2025.
- **No han aplicado** correctamente los incrementos salariales en conceptos como **el plus de tutoría, dietas y kilometraje.**

Por ello, los sindicatos con representación en Iniciativa Social STEILAS, CCOO, LAB y UGT han decidido continuar con la vía judicial para reclamar los pagos salariales firmados.

Euskal Herria, a 18 de febrero de 2025

